

Euskal AEko merkatuko zerbitzuen sektoreko salmentak % 1,7 igo dira 2025eko bigarren hiruhilekoan


Aurreko hiruhilekoan baino % 1,1 txikiagoak izan dira

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko salmentek % 1,7 egin dute gora 2025eko bigarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean. Hori guztia, Eustaten datuen arabera, prezio konstanteetan eta egutegiko eraginak zuzendua. Sektore honen barne ondorengoak daude: Garraioa, Ostalaritza, Informazioa eta komunikazioak eta Enpresentzako zerbitzu-jardueren sektoreek eskainitako zerbitzuak.

Aurreko hiruhilekoaren aldean, prezio konstanteetan eta dagozkion urtaro-eraginak kenduta, salmentek % 1,1 egin dute behera 2025eko bigarren hiruhilekoan.

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen indizearen urte arteko aldakuntza-tasa. (%)

Egutegiko eraginak zuzendua. Prezio konstanteak



Iturria: Eustat. Beste merkatu zerbitzuen indizea

Merkatuko beste zerbitzu batzuen barruan, salmenten urte arteko bilakaera % 5,5 igo da *Ostalaritzan*, % 2,6 *Garraio eta biltegiaritze* sektorean eta % 1,5 *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak* sektorean. *Jarduera profesional, zientifiko eta tekniko*en sektorean, aldiz, % 0,3 jaitsi dira eta *Informazio eta komunikazio*en sektorean % 2,1.

2025eko lehen hiruhilekoaren aldean, salmenten igoera % 3,2koa izan da *Ostalaritzan* eta % 0,8koa *Administrazio-jarduerak eta zerbitzu lagungarriak* sektorean. Bestalde, *Jarduera profesional, zientifiko eta teknikoetan* eta *Informazioan eta komunikazioetan* % 1,9 egin dute salmentek behera eta *Garraio eta biltegiatzean* % 2,1.

Euskal AEko merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). 2025/II

	Prezio finkoak		
	t / t-4	t / t-1	At / A(t-4)
Indize orokorra sektorearen arabera	1,7	-1,1	2,7
Garraioa eta biltegiatzea	2,6	-2,1	6,0
Ostalaritza	5,5	3,2	2,9
Informazioa eta komunikazioak	-2,1	-1,9	0,1
Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	-0,3	-1,9	1,1
Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	1,5	0,8	0,3
Indize orokorra lurralde historikoaren arabera			
Araba/Álava	5,3	0,7	5,5
Bizkaia	1,5	-1,4	2,4
Gipuzkoa	0,8	-1,1	2,3
Enplegu-indizea			
Euskal AE	1,0	0,4	0,6

(p)Behinbehineko datuak

t / t-4 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

t / t-1 Hiruhileko arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(t) / A(t-4) Urteen arteko aldakuntza urte honetan zehar. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

Data 2025eko Irailaren 17a

Iturria: Eustat. Merkatuko beste zerbitzu batzuen indizea

Lurralde historikoei dagokienez, hiru lurralde historikoetan positiboa izan da salmenten bilakaera urteko bigarren hiruhilekoan aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuz. Araban % 5,3 hazi dira salmentak, Bizkaian % 1,5 eta % 0,8 Gipuzkoan. Bestalde, aurreko hiruhilekoaren aldean, salmenten igoera % 0,7koa izan da Araban; aldiz, salmentak % 1,1 gutxitu dira Gipuzkoan eta % 1,4 Bizkaian.

Euskal AEko Merkatuko beste zerbitzu batzuen sektoreko landunen indizeak % 1,0 egin du gora 2024ko bigarren hiruhilekoaren aldean; gainera, 2025eko lehen hiruhilekoaren aldean, enplegua % 0,4 handitu da.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak egutegiko eraginak zuzendutako serieetan oinarritzen dira eta hiruhileko arteko aldakuntzak urtaro-eraginik gabeko serieak oinarri hartuta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Horiei esker, hiruhileko honetako indizea laginaren **% 95,76ko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62